

ZUMAIA / Euskarazko liburuen irakurketa bultzatuko dute zumaiarren artean

Irakurzaletasunaren aldeko 'liburulibre' ekimena aurkeztu zuen udalak atzo Bizilagunek Euskal Herriko hizkuntzan idatzitako materiala lortzeko aukera izango dute leku ezberdinetan

Ainara Lozano. Zumaia

Zumaiaiko Udaleko Euskara zerbitzuak Liburulibre ekimena jarri zuen abian atzo. Bookcrossing mugimendua oinarri izanik, euskaraz garatuko den egitasmoa antolatu dute arduradunek. Honela, eskainiko diren liburuak euskarazkoak izango dira eta Udalaren webgunean erabiliko den hizkun-tza ere hori izango da. "Guk dakigula inongo udalek ez du horrelakorik martxan jarri", jakinarazi zuen Maria Eugenia Arrizabalaga, Zumaiaiko alkateak, atzoko pren-tsaurrekoan.

Ekimen berriak euskal literatura eta irakurzaletasuna urte osoan bultzatzeko balioko duela azaldu zuen Euskara teknikaria den Josune Herrartek.

"Umeengan zaletasun hori bultzatzeko hainbat ekimen garatzen dituzte haur liburutegiaren bitartez, baina helduen-tzat ezer gutxi antolatzen dute helburu horrekin eta honek hutsune hori betetzeko balio du", nabarmendu zuen alkateak.

"Liburuak eta zehatzago euskal autoreak eta euskal literatura bera herritarregana hurbiltzeko balioko du. Ohiko lekuetatik kanpo egongo dira liburuak, baina herritarrak egunero ibiltzen diren lekuetan, hala nola, anbulatorioan, kiroldegian... Horrek zumaiarren eguneroko bizi-tzan txertatuko du euskal literatura", azaldu zuen Euskara teknikariak. Dagoeneko, Udalak 30 liburu jarri ditu kalean. Horietatik dozena erdi inguru gazteentzako liburuak dira eta, gainerakoak, helduei zuzendutakoak. Liburulibre logotipoarekin identifikatutako liburuak zumaiarrenak izango dira. Honela, edonork hartu eta irakurtzeko etxera eraman ditzake. Liburu bat hartutakoan Interneten, www.zumaia.net/liburulibre/ helbidean sartu eta liburu bat non eta noiz hartu duten idatzi beharko dute erabiltzaileek. Irakurri ondoren, berriz, nahi duten lekuan utzi eta helbide berean non eta noiz utzi den idatzita utzi beharko da, iritzi labur batekin batera. Honela, Internet bidez, liburu bakoitzaren jarraipena egin ahal izango da eta irakurri aurretik besteek liburuaren gainean zein iritzi duten ere jakin ahal izango dute interesatuek.